**OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA**
**ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Casares Kultur Etxean, 2007ko martxoaren 26ean, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:30etan, ondoko partaide hauekin: Antxon Alfaro, Kepa Amondarain, Edurne Barandika, Javier Cantera, José Mari Cendoya (Mari Paz Sainz Ubarrechenaren izenean), Vicente Indaberea, Iñigo Landa, Maribel Manzano, eta Luis Mari Raya. Jon Serranok ezin etortzea justifikatu du.

**1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpena**
2006ko martxoaren 25eko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartua izan zen.

**2. 2006. urteko memoriaren onarpena**
Idazkariak 2006 urteko memoria aurkeztu zuen:

**Altzako Tokiko Bilduma**
Joan den urtean 2005.ean zirriborratu zen eraldaketa gauzatu egin da.
Aldaketak egiteko arrazoiak hauek izan dira:
- Bildumaren etorkizuna kolokan zegoelako, batez ere Donostia Kultura azken bi urteetan hartu dituen erabakien ondorioz, hala nola Dokumentazio Zentroaren proiektua ez onartzea, liburutegia Tomasenera eramatea Tokiko Bilduma Casaresen utziz, eta hitzarmenen epeak laburtuz.
- AHM-ren ikuspuntutik, azken hamar urteetan indarrean egon den hitzarmena une honetan ez da nahikoa, bi puntutan batez ere: Tokiko Bildumaren fondoaren jabetza Donostia Kulturarena da. Hortaz, Donostia Kulturak inoiz hitzarmena bertan behera uztea erabakitzen badu, ordura arte egindako lan gehienaren galera suposatuko luke. Horrez gain, arrazoi beragatik, AHM-k bildutako material guztia ez da Tokiko Bildumaren fondoetara pasa eta, ondorioz, AHMren jarduerak sortutako lan multzoa bizkorrago handitu da Tokiko Bilduma bera baino.
Tokiko Bildumaren kudeaketaren truke jasotako dirua Casaresen bertan soilik eskaintzen den zerbitzua ordaintzeko erabili da. Horregatik, Tokiko Bildumatik ezin izan da dirurik atera ekipamenduak erosteko edota beharrezkoak diren beste zerbitzuak ordaintzeko.
- Informazio eta komunikazio teknologia berrietara egokitzeko dagoen premia, eta honek, alde guztietatik begiratuta, ekarriko dituen onuretaz baliatzea: lana egiteko eran, elkarlana, hedapena…
- Izan dira ere beste motetako baldintzak (lana, familia, adiskidetasuna…) egoera honetan pilatu direnak.

Hori guztia izan dela eta, hartu diren erabakiak honako hauek izan dira:
Ekainetik aurrera Juan Carlos Morak Tokiko Bilduman zeukan ardura utzi du, eta 2006. urteko jarduera plana burutzeko ardura zein 2007. urterako egitasmoa aurkezteko eta gauzatzeko ardura Iñigo Landaren esku geratu da.
Donostia Kulturaren aurrean 2007. urterako aurkeztutako proiektuan Tokiko Bildumaren egitasmo berriaren ildoa eskaini zaie. Haien erantzuna izan da lehengoarekin jarraitzea ekainera arte eta bien bitartean hitzarmen berriaren inguruan hitz egitea. Une honetan aurreikuspen ezkorrenekin ari gara lanean eta, AHM-ren urteetako ondarea babestu nahian, premia handiz Tokiko Bildumaren fondoen digitalizazioari ekin diogu.

Emandako urrats horiek guztiak dira orain dela bi urteko ekainean hasitako ibilbide baten zatia eta espero dugu aurtengo ekainerako bere oinarriak finkaturik uztea, Tokiko Bilduman bildutako ondare dokumentala behingoz AHM-ren baitan gordea.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 07:30 de la tarde del día 26 de marzo de 2007, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de Antxon Alfaro, Kepa Amondarain, Edurne Barandika, Javier Cantera, José Mari Cendoya (en representación de Mari Paz Sainz Ubarrechena), Vicente Indaberea, Iñigo Landa, Maribel Manzano, y Luis Mari Raya. Jon Serrano no asiste por enfermedad.*

***1. Aprobación del acta de la Asamblea anterior***
*Se aprobó el acta de la Asamblea General Ordinaria celebrada el 25 de marzo de 2006.*

***2. Aprobación de la memoria del año 2006***
*El secretario presentó la memoria del año 2006:*

***Colección Local de Altza***
*A lo largo del año 2006 se ha ido concretando el proceso de transformación de la Colección Local esbozado en 2005.*
*Los cambios realizados han venido dados por varias razones:*
*- La incertidumbre sobre su futuro, debida principalmente a las decisiones tomadas por Donostia Kultura estos dos últimos años: rechazo al proyecto de Centro de Documentación, traslado de la biblioteca a Tomasene sin la Colección Local, y reducción de la vigencia de los convenios.*
*- Desde el punto de vista de AHM, las limitaciones propias del convenio, que se pueden resumir en dos puntos:*
*La propiedad del fondo es de Donostia Kultura: una posible no renovación del convenio por Donostia Kultura supondría la pérdida de la noche a la mañana del trabajo de años. A esto hay que añadir que, por esa razón, no todo el material reunido o producido por AHM no haya pasado a engrosar los fondos de la Colección Local, creciendo ésta mucho más lentamente que el conjunto de la actividad de AHM.*
*Los fondos obtenidos por la gestión de la Colección Local han sido destinados exclusivamente a atender el servicio que se presta en Casares, sin posibilidad de poder destinarlos a la compra de equipamiento o al pago de otros servicios que no se podían realizar en Casares.*
*- La necesidad de adaptarse a las nuevas tecnologías de la información y comunicación, y las ventajas en todos los órdenes que éstas aportan: método de trabajo, colaboración, difusión…*
*- Otras circunstancias de índole personal (trabajo, familia, amistad…) que han concurrido estos años.*

*A partir de esas consideraciones, las decisiones que se han tomado han sido las siguientes:*
*Desde junio Juan Carlos Mora ha cesado en su responsabilidad para con la Colección Local, asumida desde ese momento por Iñigo Landa que se ha encargado de concluir el Plan de Trabajo de 2006 y la presentación del Plan para 2007 y su ejecución.*
*En el proyecto presentado a Donostia Kultura para 2007 se han planteado las líneas de lo que debería ser un nuevo enfoque en la actividad de la Colección Local. La respuesta ha sido la renovación del convenio anterior hasta junio y la negociación mientras tanto de un nuevo convenio.*
*Basándonos en las previsiones más pesimistas y con el objetivo de salvaguardar el patrimonio de AHM, hemos procedido a la digitalización urgente del fondo de la Colección Local.*

*Todos estos pasos dados son consecuencia de una renovación en la actividad de la Colección Local iniciada en junio de 2005 y que confiamos dejar definida dos años después con la recuperación para AHM del control sobre patrimonio documental reunido en la Colección Local.*

Jarduera zehatzei dagokienez, 2006. urtea urte garrantzitsua izan da:

Dokumentazioa: Errenteria, Donostia eta Gipuzkoako Agiritegi Orokorrean lan egin dugu. Pasaiako udalak sortutako mugen auzia bizi-bizi egon eta horrek galarazi digu Pasaiako udal agiritegian ere lan egin ahal izatea, udal idazkariak berak debekaturik. Gainera, argazki bilduma asko aberastu da Kutxa Fototekatik eta familia album ezberdinetatik eskuratutako argazkiekin. Horrez gain, Altzan sortutako bestelako dokumentazioa ere bildu dugu, aurreko urteetan bezala (kartelak, agiriak, aldizkariak…). Denbora falta dela eta, dokumentu horiek guztiak 2007. urtean zehar katalogatuak izateko geratu dira.
2006. urtean bilduman dauden 5139 fitxa berrikusi dira, eta euskarara itzuli dira. Horrekin batera 75 dokumentuen fitxetan jasotako informazioa osatu eta berrikusi egin da.
Datu-basea dagoeneko Interneten zintzilikaturik dago, baina oraingoz modu pribatuan soilik erabili daiteke. Espero dugu aurki kanporatu ahal izatea.
Hedapenari dagokionez, eta AHM-ren hogeigarren urteurrenaren karian, "Album altzatarra (1887-1986)" argazki-liburua argitaratu dugu. Liburuarekin batera, Casares kultur etxeak eskainitako "Aspaldian berri (1917-1986)" erakusketaren antolaketan parte hartu dugu.
Kontsulten aldetik, aholkua eta elkarlan eskaini zaie hainbat elkarteei, hala nola Jubilatuen etxea, Altzan Bizi, Herripe…
Denetara artatutako kontsultak 88 izan dira, iaz baino % 20 gutxiago (41 Casaresen bertan, 40 telefonoz, eta 7 posta elektronikoaren bitartez).
Aurten, azkenik, Interneterako banda zabaleko konexioa eskuratu dugu.

*En lo que a las actividades respecta, el año 2006 ha sido importante:*

*Documentación: Se ha trabajado en los archivos de Errenteria, Donostia y General de Guipúzcoa. El tema del conflicto de mugas ha estado presente a lo largo de todo el año y por ello al de Pasaia no se ha podido acceder por prohibición expresa del secretario municipal. Además, se ha enriquecido el fondo fotográfico con las aportaciones de álbumes familiares y de la fototeca Kutxa. Tampoco han faltado los documentos producidos en Altza (carteles, comunicados, revistas…). Por falta de tiempo, todos estos documentos quedan pendientes de catalogación para 2007.*
*Durante 2006 se ha procedido a una revisión de las 5139 fichas que componen la Colección, y se han traducido al euskara. Así mismo se ha completado la información y revisado en profundidad al menos 75 fichas.*
*La base documental está disponible en Internet, todavía, mientras se aclare su futuro, con carácter privado.*
*En cuanto a la divulgación, y haciendo coincidir esta actividad con la celebración del vigésimo aniversario de AHM, se ha publicado el libro "Album altzatarra (1887-1986)" y se ha colaborado con Casares en la organización de la exposición "Aspaldian berri (1917-1986)".*
*En lo que a las consultas respecta, se ha colaborado con distintas asociaciones (Club de Jubilados, Altzan Bizi, Herripe…), y el total de consultas atendidas asciende a 88 un 20% menos que el año anterior (41 en Casares, 40 por telefono, y 7 por correo electrónico).*
*Este año hemos conseguido, al fin, una conexión de banda ancha en Casares.*

**Hemeroteka**
Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan Altzari buruz argitaratzen diren notiziak biltzen jarraitu dugu.

***Hemeroteca***
*Hemos continuado recogiendo las noticias que se publican en el Diario Vasco y Noticias de Guipúzcoa referentes a Altza.*

**Ganbara Bilduma**
Poliki-poliki, etxeetarako sortutako material industrialarekin bilduma osatzen jarraitu dugu.
Aurtengo ekitaldian, 34 objektu biltzea lortu dugu. Aurrekoetan bezala, bazkideak, txatarregiak eta birziklapen zentroak izan dira objektuak eskuratzeko modua.
Horrez gain, bilduma osatzen duten 206 objektuen fitxa osatua egin dugu. Betetzen ditugun datuak hauek dira: Izena, erreferentzia, deskribapena, neurriak, jasotze-data, marka, fabrikatze-urtea, jasotze-lekua, kostea, oharrak.
Jarraitzen dugu urteroko arazoarekin: ez dugu jarduera hau nahi genukeen baldintzetan garatzeko espaziorik. Lortu dugu biltegi bat objektu guztiak, fitxatu eta argazki bat egin ondoren, ongi gordeak edukitzeko. Guk behar dugu leku bat objektuak ikusgai egoteko eta konpondu ahal izateko tailer bat. Eskaera egina daukagu eta bilatzen jarraituko dugu.

***Colección Ganbara***
*Poco a poco ha seguido creciendo nuestra colección de objetos domésticos de origen industrial.*
*El año pasado hemos reunido 34 nuevos objetos gracias, como en años anteriores, a las donaciones de socios y a las adquisiciones realizadas en chatarrerías y centros de reciclaje.*
*Además, hemos completado las fichas de los 206 objetos que conforman la colección, indicando los siguientes datos: nombre, referencia, descripción, medidas, fecha de alta, marca, fecha de fabricación, procedencia, coste, y observaciones.*
*Seguimos sin contar con un espacio donde desarrollar la actividad. Tenemos donde guardar los objetos en cajas después de ficharlos y fotografiarlos, pero necesitamos un lugar para trabajar con ellos. Continuamos buscando ese local.*

**Ikerketa Beka**
Joan den urtean beka deialdi berri bat egiteko finantziazioa lortu dugu, aurrekoetan bezala, Kutxaren bitartez. Denetara, 1.350 €-ko diru-laguntza eskaini dugu. Ondoren, publizitatea egin dugu prentsan eta foiletoen bitartez, eta, hala ere, tamalez, ez da inor aurkeztu. Itxura denez, diru-kopuru eskasa da eskatzen den lanerako. 2007. urtean diru-laguntzari irtenbide bat bilatzen ahaleginduko gara.

***Beca de investigación***
*En 2006 conseguimos la financiación necesaria para realizar una nueva convocatoria de la Beca, dotada como en años anteriores de 1.350 €. A pesar de haber hecho publicidad de la convocatoria con folletos y por medio de la prensa, nadie se ha presentado. Parece que la cantidad es insuficiente para el trabajo que se solicita. En 2007 se buscará la manera de que la Beca de nuevos frutos tan interesantes como los anteriores.*

**Argitalpenak**
Jarduera honen helburua da Altzari buruz egiten diren ikerketen zabalkundea, altzatarren arteko komunikazioa eta altzatarren lanaren ispilua izatea.
"Altza, Hautsa Kenduz VIII": Tomasene kultur etxe berriaren inaugurazioarekin batera egin zen liburuaren aurkezpena. Edukiak iazko memorian zehaztu genituen. Liburuaren aurkezpenarekin batera bideo bat proiektatu zen, Buenavistan Gerra Zibilaren garaian grabatutako irudiekin, Euskal Filmategitik eskuratuta. Ekitaldia bikaina izan zen: 140 lagun bildu ginen eta jende guztia oso pozik geratu zen liburuarekin eta bideo-emanaldiarekin. Liburuaren 600 aleko tirada egin da.

***Publicaciones***
*El objetivo que se persigue con las publicaciones es la divulgación de los trabajos sobre temas referidos a Altza, así como la comunicación entre los altzatarras y sus actividades.*
*"Altza, Hautsa Kenduz VIII": Se presentó el nuevo número de la colección en el marco del estreno de Tomasene. En la presentación se proyectó un reportaje sobre la Guerra Civil en Buenavista recuperado de la Filmoteca Vasca. El acto en su conjunto fue un éxito: reunió a cerca de 140 personas que en general quedó muy satisfecha con el conjunto del acto. La tirada de la publicación fue de 600 ejemplares.*
*Boletín Estibaus: Este año se han editado tres números con una*

Estibaus Buletina: aurten hiru zenbaki kaleratu ditugu, bakoitzetik 500 aleko tirada eginez.
2007. urteko egutegia: Aurten Herrerako argazki zaharrez jantzitako egutegia izan da. Argazkiak Tomas Paulis argazkilari herreratarrak eginak izan dira. "Album altzatarra" liburuaren aurkezpena Paulisi jendaurreko omenaldi bat egiteko aprobetxatu genuen, urteetan gure herriko memoriari irudiak jartzeko egin duen lanagatik. Tamaina handiko egutegiak (A3) 1.000 aleko tirada izan du eta poltsikoak 1.500. Egutegiak banatzeko, aipatutako liburuaren aurkezpena bera eta, beste urteetan bezala, herriko Olentzeroetan, dendetan eta kultur etxearen bitartez banatu dira.

*tirada de 500 ejemplares por número.*
*Calendario de 2007: Este año ha sido compuesto con fotografías de Herrera tomadas por el herreratarra Tomás Paulis. En la presentación del libro "Album altzatarra" se le tributó un sencillo homenaje en agradecimiento al trabajo realizado en fijar en imágenes la memoria de nuestro pueblo. El calendario grande (formato A3) ha tenido una tirada de 1.000 ejemplares y el pequeño de 1.500, que han sido distribuidos en el acto de presentación del libro y, como en años anteriores, en los Olentzeros, tiendas y centros culturales.*

**Lekukoak**
Proiektu honek Altzako memoria historikoa berreskuratu, gorde eta ezagutarazteko helburua dauka. Horretarako, Altza XX. mendean bizi dituen prozesu sozialen lekukoen testigantzak biltzen ari gara, ikus-entzunezko euskarritan.
Joan den urtean zehar bideoz 10 elkarrizketa grabatu genituen: Alfonso Cañamero, Dionisio Etxauri, German Aramburu, Isabel Matxinandiarena, Javier Oleaga, Jose Erauskin, Jose Luis Arozamena, Luis de la Torre, Magdalena García y Paco Pintado.
Halaber, bi dokumental ekoiztu ditugu: "Inauguración de la iglesia San Jose Obrero de Los Boscos" eta "San Pablo parrokia Casares baserrian". "Album altzatarra 1887-1986" argazki-liburuaren aurkezpenean biak aurkeztu genituen.

***Testigos***
*Este proyecto pretende contribuir a la recuperación, preservación y difusión de la memoria histórica de Altza a través de los testimonios audiovisuales de las personas testigos de los diferentes procesos sociales que se han producido en nuestra comunidad a lo largo del siglo XX.*
*Durante el pasado año 2006 se grabaron 10 entrevistas a las siguientes personas: Alfonso Cañamero, Dionisio Etxauri, German Aramburu, Isabel Matxinandiarena, Javier Oleaga, Jose Erauskin, Jose Luis Arozamena, Luis de la Torre, Magdalena García y Paco Pintado.*
*Así mismo, se elaboraron dos documentales, "Inauguración de la iglesia San Jose Obrero de Los Boscos" y "San Pablo parrokia Casares baserrian", que se emitieron en la presentación del libro de fotografías "Album altzatarra 1887-1986".*

**Excursiones**
Otsailaren 4an, Ollo Harana, Iza, Arakil, eta Larraunera joan ginen, Garaño, Aizita (Dos Hermanas) eta Gorriti gazteluak bisitatuz. Bide batez, Zeia-ko herri hustua, Yarte-ko Granja-monastegia, Oskiako Amabirjinaren Ermita, Itxasperriko Santiago, Hiriberri-Arakil... .
Maiatzaren 27an, Altza Hautsa Kenduz gure liburuaren kolaboratzaileak diren Pedro García eta Pilar Pascualen eskutik Errioxara joan ginen leku hauek bisitatzera: Najerilla ibai arroa eta inguru horietan kokatzen diren arkeologia, arkitektura eta etnografiako monumentu garrantzitsuenetakoak (Trizio, Bezares, Anguiano, Canales de la Sierra, Viniegra, Villavelayo eta Naiara).
Irailaren 16an, Fermin Leizaola eta Aranzadi Z.E.-aren eskutik, Valdegobiako eliza erromanikoak, kobazulo artifizialak, dorretxeak, jauregiak eta tradizioko arkitektura, baita ere Valderejo parkea bisitatu genuen.
Azaroaren 11n, Arabako Araia eskualdera joan ginen, ondoko bisita egitarauarekin: Amamioko herri hustua eta San Joan Bataiatzailea ermita, Morutegiko gaztelua, Ristrako herri hustua eta San Julian eta Santa Basilisa ermita, Santiago bidearen zati bat, Agurain, Gazeoko San Martin parrokiaren paretako margoak, eta Alaizako Jasokundeko parrokiaren paretako margoak.
Plus 55 egitasmoaren barnean, bi txango antolatu ditugu 55 urtetik gorako pertsonentzako, bat Ametsagaina aldera eta bestea Txipresera Molinatotik barrena.

***Ibilaldiak***
*El 4 de febrero fuimos al Valle de Ollo, Iza, Arquil y Larraun, y visitamos los castillos de Garaño, Aicita (Dos Hermanas) y Gorriti. Aprovechamos para visitar también el despoblado de Ceya, la granja-monasterio de Yarte, la ermita de la Virgen de Oskia, Santiago de Ichasperri…*
*El 27 de mayo, organizada por Aranzadi y de la mano de los colaboradores de Hautsa Kenduz Pedro García y Pilar Pascual, fuimos a La Rioja para visitar los siguientes puntos de interés: la cuenca del Najerilla y los importantes monumentos arqueológicos, arquitectónicos y etnográficos con que cuenta (Tricio, Bezares, Anguiano, Canales de la Sierra, Viniegra, Villavelayo y Nájera)*
*El 16 de septiembre, también con Aranzadi y Fermín Leizaola, fuimos a Valdegobía a visitar iglesias románicas, cuevas artificiales, torres, palacios, arquitectura tradicional, así como el parque de Valderejo.*
*El 11 de noviembre viajamos a la zona de Araia con el siguiente programa: despoblado de Amamio y la ermita de San Juan Bautista, castillo de Morutegi, despoblado de Ristra y ermita de San Julian y Santa Basilisa, un tramo del Camino de Santiago, Salvatierra, pinturas murales de San Martín de Gaceo y de la parroquia de la Asunción de Alaiza.*
*Dentro del plan Plus 55 para mayores de 55 años se han organizado dos excursiones, una a Ametzagaina y otra a Txipres por Molinao.*

**Altzanet**
Aurreko urtetan egindako jarduerekin, aurten ere, jarraitu dugu. Bisitarien kopurua 52.460izan da eta ia-ia 130.000 orri ikusi dira. Egindako ekintza nagusiak hauek izan dira:
Urtean zehar Altzan antolatu diren ekintzen informazioa era digitalean eskaini dugu: web gunearen edota posta elektronikoaren bidez.
Web gunearen orri nagusian atal berri bat ireki dugu: "Altza prentsan". Atal honetan egunero egunkarietan Altzaren gainean azaltzen diren berriak jasotzen ditugu.
Helbide elektronikoak, altza.net domeinuarekin, elkarte eta herritarren artean dohainik banatzen jarraitu dugu.
Bi posta zerrendak kudeatu ditugu: altzanet@altza.net eta altza21@altza.net.
AHMren web gunearen kudeaketa egin da. Elkarteak dituen bi proiektuen orriak webgunean kokatu dira: Ganbara eta Lekukoak.
Estibaus buletinaren edizio elektronikoa eskaintzen jarraitu dugu.
Joan den urtean zehar gure komunikazioetan SMS mezuen bidalketa web guneen bidez jarraitu dugu erabiltzen.
Foro bat martxan dago. Atal honekin gai desberdinen gainean

***Altzanet***
*Hemos continuando con la dinámica de años anteriores. El número de visitantes ha sido de 52.460, visualizando 130.000 páginas. Las principales actividades llevadas a cabo han sido:*
*Hemos ofrecido información en formato digital de las actividades organizas en Altza, a través de la página web y del correo electrónico.*
*Hemos incluido en la página inicial una nueva sección "Altza en la prensa" donde diariamente recogemos las noticias que sobre Altza se publican.*
*Hemos continuado extendiendo deforma gratuita entre las asociaciones y vecinos el uso del dominio altza.net en el correo electrónico.*
*La gestión de dos listas de correo: altzanet@altza.net y altza2l @altza.net.*
*La gestión de la página web de AHM. Se han puesto en marcha los apartados de dos actividades de la asociación: Ganbara y Lekukoak.*
*Edición electrónica del boletín Estibaus*
*Hemos profundizado en el uso de mensajes SMS a través de web en nuestras comunicaciones.*

(kultura, hirigintza, solidaritatea, kirolak….) iritziak emateko eta elkar trukatzeko aukera bat eskaintzen da.

Aurreko urteetan bezala, ez litzaiguke gustatuko bukatzea aipatu gabe EDONOSTIA.NET Teknologia Berrien Zentroarekin ez dagoela inongo harremanik elkarlanaren bat egiteko.




*Funciona un foro para intercambiar opiniones sobre distintos temas (cultura, solidaridad, urbanismo, deportes…).*

*Por último, volver a señalar como en años anteriores la nula colaboración con el Centro de Nuevas Tecnologías EDONOSTIA.NET.*




| | |
|---|---|
| Total de sesiones | 52,460.00 |
| Total de Páginas vistas | 129,643.00 |
| Total de accesos | 887,499.00 |
| Total de Bytes transferidos | 10.63 GB |
| Promedio de sesiones por día | 143.73 |
| Promedio de Páginas vistas por día | 355.19 |
| Promedio de accesos por día | 2,431.50 |
| Promedio de Bytes transferidos por día | 29.82 MB |
| Promedio de Páginas vistas por sesión | 2.47 |
| Promedio de accesos por sesión | 16.92 |
| Promedio de Bytes por sesión | 212.46 KB |
| Duración promedio de las sesiones | 00:04:57 |

**Kanpoko harremanak, finantziazioa eta bazkideak**
HARREMANAK:
Aurten ez dugu formalki parte hartu Altzan lanean ari diren foroen bileretan; hala ere, aurreko urteetan bezala jarraitu dugu haiekin harremanetan eta une jakinetan elkarrekin lanean, dauzkagun aukeren arabera.
Kolektiboak: Altza Institutua, Altza XXI Herri Ekimena, Altzan Bizi Herri Ekimena, Nao-Etxea Jubilatuen Etxea, Irutxuloko Hitza, Herrerako Mozkor Frontekideok, Bizarrain, Herripe, AA.VV. Amara Osinaga.
Partikularrak: Felix López, Begoña Oyanguren, Luisa Santos, Pepe Sarriegi eta Mari Carmen Domínguez, Miguel Angel Díez, Tomas Paulis, Ana Mari Fernández, Faustino Caballero, Juan Quintanilla, Jose Antonio Santos, Jose Luis Facenda, Mª Loly Egaña Sarasola.

FINANTZIAZIOA:
Gure jarduera aurrera eramateko finantziazio nahikoa lortu dugu.

BAZKIDEAK:
Batzarrean Elkartean sartzeko hamabi eskabide berri aurkeztu dira:
182 JOSE MARI FERNANDEZ JIMENEZ
183 TXOKOLARTE (XAFLAX Grabatzaileen Elkartea)
184 MAITE ALBERO MENDIBURU
185 XANTI ELIZALDE BERGARETXE
186 LURDES HERRERO IBARGOIEN
187 BEGOÑA ALZAGA ALKORTA
188 IÑAKI EZAMA ETXANIZ
189 SUSANA HERNANDEZ CORCHETE
190 MIREN KORO GARCIA MORAZA
191 PILI ESNAOLA ARRUTI
192 MARIBEL MANZANO MERCE
193 OSCAR SOLA BUENO
Era berean Urteko Batzar Nagusian bazkide hauen baja aurkeztuko dira:
38 JOSE ANDRES ETXEBERRIA IRIARTE
56 IÑAKI IARZABAL
103 FELIX ARRUABARRENA HERNANDEZ
134 IÑAKI URKIA AGIRREZABALA
175 IÑAKI VIDAL CARBALLARES
180 PEDRO MIGUEL HOYOS

Idazkariak aurkeztutako 2006. urteko memoria aho batez onartzen da.

***Relaciones exteriores, financiación y socios-as***
*RELACIONES:*
*Este año no hemos participado formalmente en los diferentes foros que actualmente trabajan en Altza, pero hemos mantenido el contacto y colaboración puntual como en años anteriores según nuestras disponibilidades.*
*Colectivos: Altza Institutua, Altza XXI Herri Ekimena, Altzan Bizi Herri Ekimena, Nao-Etxea Jubilatuen Etxea, Irutxuloko Hitza, Herrerako Mozkor Frontekideok, Bizarrain, Herripe, AA.VV Amara Osinaga.*
*Particulares: Félix López, Begoña Oyanguren, Luisa Santos, Pepe Sarriegi y Mari Carmen Domínguez, Miguel Angel Díez, Tomás Paulis, Ana Mari Fernández, Faustino Caballero, Juan Quintanilla, Jose Antonio Santos, Jose Luis Facenda, Mª Loly Egaña Sarasola.*

*FINANCIACION:*
*Hemos conseguido la financiación suficiente para desarrollar nuestras actividades.*

*SOCIOS-AS:*
*Se presentan a la Asamblea doce nuevas solicitudes en entrada en la Asociación:*
*182 JOSE MARI FERNANDEZ JIMENEZ*
*183 TXOKOLARTE (XAFLAX Grabatzaileen Elkartea)*
*184 MAITE ALBERO MENDIBURU*
*185 XANTI ELIZALDE BERGARETXE*
*186 LURDES HERRERO IBARGOIEN*
*187 BEGOÑA ALZAGA ALKORTA*
*188 IÑAKI EZAMA ETXANIZ*
*189 SUSANA HERNANDEZ CORCHETE*
*190 MIREN KORO GARCIA MORAZA*
*191 PILI ESNAOLA ARRUTI*
*192 MARIBEL MANZANO MERCE*
*193 OSCAR SOLA BUENO*
*Así mismo, en la Asamblea General se presentan las siguientes bajas:*
*38 JOSE ANDRES ETXEBERRIA IRIARTE*
*56 IÑAKI IARZABAL*
*103 FELIX ARRUABARRENA HERNANDEZ*
*134 IÑAKI URKIA AGIRREZABALA*
*175 IÑAKI VIDAL CARBALLARES*
*180 PEDRO MIGUEL HOYOS*

*Se aprueba por unanimidad la memoria del año 2006 presentada por el secretario.*

3. **2006. urteko kontuen onarpena**

*3.* ***Aprobación de las cuentas del año 2006.***

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (2005/12/31) | 3.385,72 | |
| Bazkide kuotak | 1.588,00 | 30,07 |
| Donostiako Kultur Patronatua (Dirulaguntza) | 1.502,00 | |

| | | |
|---|---|---|
| Orona | 2.278,56 | |
| Interesak | 15,93 | |
| Tokiko Bilduma (Kudeaketa) | 8.798,96 | 8.514,56 |
| Tokiko Bilduma (Fototeka) | 675,00 | 1.450,83 |
| Kudeaketa | | 161,12 |
| Estibaus Buletina | | 442,37 |
| Altzanet | 1.856,27 | 2.289,52 |
| Tokiko Bilduma (Artxibo Dokumentuak) | | 39,33 |
| Informatika Materiala | | 606,60 |
| Ganbara Bilduma | | 107,00 |
| Lekukoak | 1.708,35 | 3.473,84 |
| Egutegia | 450,00 | 525,81 |
| Txangoak | | 179,69 |
| "Altza ezagutuz" Programa | 180,00 | 180,00 |
| Besteak | | 163,12 |
| **GUZTIRA . . .** | **22.438,79** | **18.163,86** |

***SALDOA (2006/12/31): 4.274,93 €***

| | |
|---|---|
| **KUTXA Donostia Gipuzkoa** | **2.856,21** |
| **EUSKADIKO KUTXA** | **1.418,72** |

- *KOBRATU EDO ORDAINDU GABE*

| | + | - |
|---|---|---|
| **Saldoa (2005/12/31)** | **4.274,93** | |
| Tokiko Bilduma (Kudeaketa) | 2.961,73 | 3.331,28 |
| Egutegia (2006) | 150,00 | |
| Egutegia (2007) | 750,00 | |
| Donostiako Udala (Lekukoak) | 312,65 | |
| Donostiako Udala (Altzanet) | 341,07 | |
| Fototeka (Tokiko Bilduma) | 213,00 | |
| | | |
| | **9.003,38** | **3.331,28** |

*SALDOA (2006) ≈ 5.672,10 €*

Diruzainak aurkeztutako 2006. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

**4. 2007. urterako egitasmoa**
Iazko lan-eskemarekin jarraitzea erabaki zen.

**5. Bazkide berrien onarpena**
Batzarrean Elkartean sartzeko hamabi eskabide berri aurkeztu dira:

182 JOSE MARI FERNANDEZ JIMENEZ
183 TXOKOLARTE (XAFLAX Grabatzaileen Elkartea)
184 MAITE ALBERO MENDIBURU
185 XANTI ELIZALDE BERGARETXE
186 LURDES HERRERO IBARGOIEN
187 BEGOÑA ALZAGA ALKORTA
188 IÑAKI EZAMA ETXANIZ
189 SUSANA HERNANDEZ CORCHETE
190 MIREN KORO GARCIA MORAZA
191 PILI ESNAOLA ARRUTI
192 MARIBEL MANZANO MERCE
193 OSCAR SOLA BUENO

Aho batez onartzen dira.

*La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2006 presentado por el Tesorero.*

***4. Plan de actividades para el año 2007***
*Se decidió continuar con las líneas de trabajo del año anterior.*

***5. Admisión de nuevos socios y socias***
*Se presentan a la Asamblea doce nuevas solicitudes en entrada en la Asociación:*

*182 JOSE MARI FERNANDEZ JIMENEZ*
*183 TXOKOLARTE (XAFLAX Grabatzaileen Elkartea)*
*184 MAITE ALBERO MENDIBURU*
*185 XANTI ELIZALDE BERGARETXE*
*186 LURDES HERRERO IBARGOIEN*
*187 BEGOÑA ALZAGA ALKORTA*
*188 IÑAKI EZAMA ETXANIZ*
*189 SUSANA HERNANDEZ CORCHETE*
*190 MIREN KORO GARCIA MORAZA*
*191 PILI ESNAOLA ARRUTI*
*192 MARIBEL MANZANO MERCE*
*193 OSCAR SOLA BUENO*

*Se aprueban por unanimidad.*

Era berean Urteko Batzar Nagusian bazkide hauen baja onartzen da:
38 JOSE ANDRES ETXEBERRIA IRIARTE
56 IÑAKI IARZABAL
103 FELIX ARRUABARRENA HERNANDEZ
134 IÑAKI URKIA AGIRREZABALA
175 IÑAKI VIDAL CARBALLARES
180 PEDRO MIGUEL HOYOS

*Así mismo, en la Asamblea General se aprueban las siguientes bajas:*
*38 JOSE ANDRES ETXEBERRIA IRIARTE*
*56 IÑAKI IARZABAL*
*103 FELIX ARRUABARRENA HERNANDEZ*
*134 IÑAKI URKIA AGIRREZABALA*
*175 IÑAKI VIDAL CARBALLARES*
*180 PEDRO MIGUEL HOYOS .*

**Bestelakoak**

Besterik gabe batzarra amaitutzat eman zen.

***Ruegos y preguntas***

*Sin otro particular la asamblea general se dio por terminada.*

Idazkaria

Iñigo Landa

*Lehendakaria*

*Jon Serrano*